

AUZOTASUNA EDO NEKAZAL HIRITARTASUNA

1. Sarrera

Tradiziozko nekazaritza-gizartean auzokoa izatea, eta ez bizilagun hutsa zen, elkarrean eskubide osozko kideztat hartua izateko garantia bakarra. Talde barruko betebeharrak eta ekonomia, gizarte eta erlijio arloko eskubideak auzokoa izatearen zerak, hau da, nekazaritza-abeltzantzan jarduten zuten nekazaritza etxeen betebeharrak eta eskubideak eta, ondorioz, gure lurraldeko herri eta haranetako berezko gizarteko ondarearen kudeatzaileak izaten ziren.

Auzotasun hau era askotan agertzen zen, eta, batez ere, egituratuta eta araututa egoten zen. Bizilekua, ekoizpen-guneak eta mendi-lurren ustiapen mankomunatuaren arteko luturak, giza-taldearen iraupenari nahiz ugalketari eta lehenagoko ohitura eta ekandutzat jotzen ziren gizarte eta kultura arloko bizitza-moduari lagungarri izaten zitzaion bizimoduaren adierazpideak izaten ziren.

Aramaioko auzotasunaren hartuemonak aurkeztean, bi ikuspuntu gogoan ditudala egiten dut. Lehen eta behin, honelako giza-hartuemonetan barru-barruan egoten den egitura, hau da, bultzatzen dituen barruko eragina, daukan oinarria eta adierazten duten pentsamoldea ulertu nahi ditut. Gero, horren ostean, haraneko gizartearen giza-ibilaldi historikoaren azterketa egitean, tradiziozko lotura-erak bizizirik jarraitzen dutela oraindik, bertan agertuko da. Hainbat ohitura galdu badira ere, antolatze moduak eta gizartea egituratu eta auzoko joerak errito bihurtzeko erak bizirik jarraitzen dute Aramaioko haraneko auzotarrek hartu dituzten gizarte-antolaketa berrietan.

2. Lehenagoko ikuspegia

Aramaioko haraneko tradiziozko bizimodua, batez ere nekazaritza-abeltzantza jardunean oinarritzen zen. Etxeko kideentzako janaria lortzeko ale mota ugari ereitea (bizi-

raupenezko askotariko lugintza), etxeko aberak haztea, abeltzantza-jarduna (artaldeak¹ eta baso-behiak), frutarbolak (gaztainondoak, sagarrondoak eta antzekoak) eta baso lanak (egurra, ikatza, ira eta larreak) ziren bizitzako baliabide edo errekurso nagusiak.

Haraneko geografia, ekonomia eta gizarte-kulturaren gune zen baserriaren inguruan sortutako nekazaritza-abeltzantza jarduna zen.

Hau da, haraneko eta, orokorren, Euskal Herriko tradiziozko nekazaritza-bizitzari buruz hitz egiteak, beraren gunea den era berezi hau barru-hartzen duen baserriari buruz jardutera eroaten gaitu. Etnografiaren ikuspegiz begiratuta, baserria, gizarteko eragina eta euskal nekazaritza-bizitzako kultur gunea eratzen duten elementuen (etxea, etxeoak, lantzeko lurrak, mendiko larreak eta auzokoen gizarte-erlijio arloko eskubideak) multzoa dela esan daiteke.

Lehengusu edo diren pirineoetako gainerako auzokideekin pareko egiten duten ezaugarri nagusienek (etxaldea, oustal, masia, domus) honako oinarriok dituzte: ondarea-ren besterenganaezintasuna, sexua kontutan hartu gabe eginiko eskualdaketa zatiezina (maiorazkoa), oinetxekotasuna (tronkalitatea) eta ondasunak etxeko oinordekoaren eta etxeko nagusiaren artean mankomunitatean izatea.

Baserria, etxetik hurreko lurren bakarreko ustiapena eta mendikoen taldekako kudeaketa dituela, etxeko taldea osotzen dutenen, auzotarren eta gizarteko erakundeen norabideak egituratu eta zuzenduz nortasun juridiko eta morala biltzen dituen erakundea da².

Haraneko bizilagunak, lehenago (gaur egun baino ugarioagoak - mende honen hasieran 2.056 bizilagun ziren) jende gune txikietan (bizileku-erdi batuak) eta baserri sakabanatuetan (bizileku sakabanatuak) banatuta, auzotarren lankidetzaz-jardunik handienetarikoa (auzolana) zekarren mendiko bideen (burdibideak) sareak elkartuta aurkitzen ziren.

Gizarte, erlijio eta kultura bizitzak auzoan eta elizatean izaten zuen bere berezko lekugunea. Elizate bakoitzak, errota, eliza, eskola, kanposantu eta auzo-antolaketa (auzo-alkatea) zituela, bertako beharrezanez erantzuteko eta bertako giza eta kultura bizitza barruhartzen zituen auzotasuna sortzeko gaitasuna izaten zuen.

Haraneko tradiziozko bizimoduak, gizarte-ekonomia eta kultura arloko harremanak ezartzerakoan, lehentasuna ematen zien mendi-guneari eta auzoari. Hala ere, bazituen haranak ezaugarri berezi batzuk, auzotarrak eta baserriak elkarren arteko goragoko nortasun bakarrean batzeko: kalearen inguruan egiten ziren ekonomia eta merkataritza loturak, udal administrazioa, mendi-lurren erabilera mankomunitatea, haraneko auzotar guztiena zen Ibabeko Andra Mariaren kofradia. Hala eta guztiz ere, bizitza-loturarik sendoena mendi-lurren inguruan sortzen zen. Bide, ermita, komunikabide, abeltzantza-lan, bigarren mailako semeentzako lan eta antzerakoek lehentasuna ematen zieten aintzina, mendietako

¹ Hauek ez dira izan haraneko ekonomiaren funtsezko oinarria. Baserriko askotariko ereintza sistemaren osagarri izan dira. Artalde txikiak ziren gehienetan. Handienak Oletan aurkitzen ziren

² Baserria dugu haraneko gizarte-antolaketa txikiena, etxeak, lantzeko lurrek (ondarea), identifikazioak (izenak), beste etxeenganako betebeharrak eta eskubideak (auzulurrak, errota, anda-bideak, alkarlaguntza) eta parrokia elizako hilobiak osotua dela.

pasabideei. Geografia eta gizarte alorreko inguru hau, era berean, oinarri-oinarrizkoa dugu haranaren aintzinako bizimodua egokiro ulertzeko. Egia esanez, haran hau, etxeetara bizitzeko baliabideak ekartzeko laguntza bide ziren mendi handiek inguratuta aurkitzen den tontor eta bizkar multzoa dugu.

Historiako Erret Akademiaren Hiztegiak 1802.ean Aramaioko harana aipatzean zera dinosku; pago, haritz, ametz eta gaztaina arbolaz beteta zegoela eta behi, behor eta ardientzat larre on eta ugariak zituela. Era berean, bertan otsoak, azeriak, lepazuriak, basakatuak, basurdeak, basahuntzak, erbiak, eperrak eta oilagorrak ere aurkitu ahal zirela. Kondearen basoak balio handikoak zirela eta beraren eta haranaren artean erdibana erabiltzen zirela eta larratzeko erabiltzeaz aparte, bertatik urtero 3.500 burkada ikatz ateratzen zituztela. Bertako mendietan marmol eta harbel harrobiak zeudela ere aipatzen du. Hitzez-hitz honela dio:

“Las montañas están bien pobladas de árboles, de hayas, de robles, de cagigos y de castaños. En sus buenos y abundantes pastos hay mucho ganado bovino, bastante caballos y un poco de ovino. Hay toda clase de lobos, de zorros, de garduñas y de gatos salvajes. Hay también jabalíes, ciervos, liebres, perdices y becadás o sordas. Los terrenos de monte del conde, comunes entre este y el valle son muy estimados ya que, además de pastos, todos los años dan 3.500 carretas de carbón. Se encuentran también en sus montes canteras de marmol y de pizarra” (1802 : 85).

Mendirik gabe ezin izango zuen iraun tradiziozko baserriak. Ongarria, egurra, larreak, ura, euriak, den-dena menditik etortzen zen. Gizarteko loturak, alboetako haranetakoein izandako hartuemonak (ez beti baketsuak) eta elizbirak (Urkiolara) gune eta ibilbide ber-bera, hau da, mendia zuten. Maiorazko ez ziren semeen etorkizuna (artzantza, ikez-kintza) ere mendiak ziurtatzen zuen.

Gune ezberdin eta osagarri hauen (baserri, auzo eta haranen) arteko era askotako hartuemon honek azaltzen eta antolatzen ditu auzotasunezko hartuemonak deitzen ditugunak.

3. Etxeen eta auzokoen arteko hartuemonak

Hainbat ikuspegi (laguntza ekonomikoa, ondra-erritoak, erlijioa, auzolana) zituen auzotasuna, elkarren arteko gizarteko hartuemon-gune ezberdinetan (hurreko auzokoen artean (ateikurrena), auzo mailan, haran mailan eta, azkenik, eskualde mailan - eskualdeko merkatu, Urkiola egiten ziren elizbira eta antzekoetan) agertzen zen. Hala ere, behin-behineko gunea, auzoa eta elizatea ziren.

Euskal auzotasuna, nekazaritza-etxeek, lurralde berean bizi, elkarren artean arauak jarri eta elkarbizitzarako eta lankidetzarako lotura estu eta iraunkorrek ezarrita bizitzea baino ez dugu.

Corta-k oso egokiro definitzen du erakunde mota berezi hau, *“legezko nahierarako erakunde diren udalerriek menpekoei eskubideak, polizia, legeak, papera, paper ugari*

eskaintzen dien artean, partaideek beraiek zuzenean eta demokratikoki eratu eta bideratzen duten elkarte honek belarrak, larreak, idiskoa eta abereentzako segurtasuna, nekazaritzarako lurra eta alea, sukaldeko beharrianetarako ortua, landetarako ura, auzokoen auzolanetako laguntza, eraikinetarako zura eta etxeko tresnak egiteko sutesgia, ehoteko errota, behar dituztenak erosteko denda, gaisotasunetarako laguntza, atsedendietarako jaiak eta arimarentzat oroitzapena eta otoitza eskaintzen dizkie” (1936 : 236) esaten digunean:

Auzotasuna, bada, oinarritzko ezaugarritzat baserrian bizimodua egiten duten familietaldeen arteko hartuemonak dela esan dezakegu. Auzotasunezko hartuemonak etxez etxe ematen dira. Hartuemon hau izateko behar-beharrezko baldintza, “sua izatea”, hau da, iraunkortasunez leku batetan bizitzea izango da.

Baserriaren inguruan hasiko dira, bada, indartzen auzotasunezko hartuemonak haranean. Tradizionaren arabera, elkarlaguntza, lankidetzeta eta zerbitzuak ematea, hiru guneetan, hau da etxe-gunean, ekoizpen-gunean eta elkarte edo kofradietan izan da. Hirugarrenak taldekako intereseko arazoetan agertzen den kooperatibismo-erako ikuspegia edukitzea eskatzen du.

Azken batetan, haraneko nekazaritza-gizarteko ekoizpenerako eta iraupenerako sortutako hiru jabetza-erok, baserriak, aldian eta tokian irauteko asmatutako era ezberdinak baino ez dira. Hau da, baserriak auzokoen laguntzarik gabe irauterik ez zuen garaiak ziren. Laguntza hori gabe, ekaitzak belarra galtzea ekarriko zuen, ezingo zuen lurra laiatu, ezingo zuen karea egitea edo ira ekartzea ziurtatu eta, azkenik, ezingo zien aurre egin, taldekako erantzun antolatuturik gabe, sutesei, izurriteei edo bestelako antzerakoez beharrei.

“Eguneroko beharrianek berez sortutako zerbitzuak izaten ziren: astoa uzten zen esnea kalera jaisteko, larraina garia joteko, oiloa txitak ateratzeko, eta horrela. Baina, baziren ohiturazko zerbitzuak, erantzunbeharra zekarrenak ere: txerrierregalua, laiaketa, esnea kalera jaistea, lorra...”

Azken hau, berehalako erantzunik ez zuen lankidetzeta mota zen, Aramaioko auzotasunezko hainbat ikuspegi lotzen zituen: ³ Ira ekartzeko (iri-lorra)⁴, etxerako egurra batzeko (egur-lorra), etxeren bat erretzen zenean edo eta eliza nahiz eskola konpondu behar zenean eraikitzeko (zur-lorra), basoko txaboletatik satsa ekartzeko (sima-lorra) eta maiorazko ez zenak artaldea eskuratu edo artzaintzari hasiera emateko egiten zena (bildots-lorra). Aramaion ohitura honi “lor-afarixe” deitzen zioten mesedea edo laguntza jasotzen zuenak afari bat emanez ordaintzen zuelako.

Baserria, etxeko taldea hazkunde-aldian auzokoen laguntza beharrean uzten zuen maiorazkoan oinarrituta, zatituezinezko sistema, aintzinako ekoizpen teknika atzeratuak (leiaketa, karea egitea, sateseko ongarriketa) eta larren taldekako eskubideak errespetatu beharreko mendiaren erabilera sistema izaterakoan, auzotasuna, beharrian materialei

³ Unamunok dino lorra zela Bizkaiko nekazaritza arloko gizakoitasunaren ezaugarri nagusia.

⁴ Seme-alabak txikiak zirenean edo animaliak zahartzen zirenean, ondoko etxeko laguntza behar izaten zen.

aurre egiteko irtenbide zen adinean, gizartearen antolaketaren eta ohiturazko pentsakera-
ren eta praktiken gune zen adinean, gizarteko loturak, betebeharrak, egikinkizunak eta
bizitzako zeregin nagusienak ulertu eta egituratzeko era berezia zen.

Hartuemon hauetan, borondate ona edo eta laguntzeko gogoia baino barruragoko
zerbait ageri da. Baserriaren iraupenerako behar-beharrezkoak zirelako zeuden antolatuta.
Honek maiorazkoa bezalako antolakundea behar zuen zatiketarik ez sortzeko. Era berean,
bazeukan, ugaldtu eta aliantzak egiteko, beste baserri batzuekinn ezkontza-loturak egin
beharra ere. Horrekin batera, ekonomia arloan, biziraupenezko askotako ereintzan eta
mendien taldekako erabileran oinarritutako ustiapen-sistema behar zuen.

Era berean, auzoko laguntzen eta auzoan eta haranean “auzo-etxetzat” hartua izatea-
ren beharra zeukan, errota erabili ahal izateko, egurra eskuratzeko, haraneko hildakoen
betiko atsedena babesten zuen Ibabeko Andra Mariaren kofradian partehartzeko edo eli-
zan (kanposantuan) hilobia edukitzeko.

Aramaioko udalean 1577.etik 1857.era bitartean 255 kaperatasun-eskari egin ziren.
Beraietariko batetan, Oñatiko jaun batek, haraneko auzokoen artean onartua izateko
jatorriz aitonen seme edo noble izatea frogatu beharra izan zuela agertzen da. Jaioterria
jasoten zuen bateoko ziurtagiria, gurasoen eta aitajaun-amandreen izenak eta deiturak,
eta bai bera baita bere gurasoak eta aitajaun-amandreak ezagutzen zituztela ziurtatzen
zuten lau lekuko edo tesgituren ziurtagiria aurkeztu behar izan zituen. Eta, ikusirik, bai
bera bai bere aurrekoak odolez eta jaiotzez jatorri garbikoak eta kristau zaharrak eta
beraz aitonen semeak zirela eta ez zutela odol-nahasterik ez indioekin ez mairuekin ez
zuzenbidez gaitzetsitako beste herese eta sektakoekin, onartua izan zen. Hona hemen
hitzez hitz testu zatia:

*“No hay duda de que el mencionado José Marcos es vecino noble, hijo-
dalgo notorio de sangre porque sus ascendentes eran de esta clase, nobles
desde siempre, originarios de la casa solar de Beitia, situada en el barrio de
Araoz; ha asistido a las cofradías de nobles de Aranzazu y de S. Miguel de
esta villa y a los demás llamamientos reservados a los nobles. Su nombre
está entre los nobles en calidad de su origen solariego. El testigo sabe que
José Marcos, él mismo, sus padres y abuelos son viejos cristianos, de sangre
pura, sin mezcla alguna de indio, moro, herético o de otra secta reporbada
en derecho y casstigada por el Santo Tribunal de la Inquisición”.*

Auzotasun-eskubideak, bada, oinetxeari eta odol garbiko izateari lotuta ageri dira.
Haran barruko endogamian eta, sarritan, auzo barruko endogamian errotutako gizartean,
derrigorrez elkari lotuta ibili behar aurreko biak.

Baserria, alde batetik, eta herri-lurrak, bestetik, izan ziren lehenagoko gizartean
auzotasun-hartuemonei eutsi zioten zutabe biak. Biak, baserria eta herri-lurrak gizarte
barruko erakunde zatiezinak eta besterenganaezinak dira. Ausotasunezko hartuemonek,
beraren barruko egituraren alderdi biak, zatiezintasuna eta besterenganaezintasuna zaindu
eta iraunerazten laguntzen zuten.

3. Auzotasuna haraneko gizartekoitasun-era berrien oinarri eragilea.

Euskal Herria modernizatzearen ondorioz, galdu egin dira (mende honetako 50. urtetik aurrera), produktuak ateratzeko eta kudeatzeko tradiziozko mendialdeetako jokae-ra asko; ohitura guzti horiek betiko balioa galdu dute eta hainbat eta hainbat hasiko dira baserriaren krisialdia iragarri eta, ondorioz, euskal kulturaren hondamena datorrela deia-darka. Aramaioko haraneko gaur egungo gizarte-hartuemenonak aztertzeari ekiten badiogu, bestetara dela, hau da, lehenagoko antolaketa-arauak gaur egungo jokaera eta erakundetan berriro mamituta agertzen direla ikusiko dugu. Jaiek, gastronomia-elkarteek, ehiza eta mendigoizale taldeek eta antzerakoek auzoko izatea nola bizi erakusten digute; eta auzotasun hori txandaka eta elkarren arteko erantzunkizunak hartuz bizitzeak, kokalekua auzo txikia izan beharrean haraneko gunen nagusia kalea dutela haranean bizi direnen katea luzeko partaide izatea agertzen du. Gizarte antolaketa berri hauei esker, haran osoa auzo handi bat egin da, bertan auzotasunaren barruko indarra, barriro, nekazaritza-gune berri bat egiteko gogoan eta ahaleginetan agertzen dela.

Josetxu Martinez M.
1995.eko urtarila